

GEU elkartearen babesarekin

FRANKEO ITUNDUA 48/27

Gasteiztar baten abenturak PERU



Sibori,
Alaveseko jokalaria
elkarrizketa

Hizkuntza ohiturak direla-eta.

Duela bizpahiru urte biziki interesgarria iruditu zitzaidan gutuna irakurri nuen Egunkarian. Eibarko Aitor Gorosabelek izenpetzen zuen eskutitza eta bertan, euskararekin izan duen gatazka azaltzen zuen. Euskal Herriko milaka gazteri gertatu zaion bezala, nahiz eta ikasketak ikastolan egin, bere harremanak gaztelara hutsean gauzatzen ziren. Horrek sortzen zion egoezina jasan ezinik, halako batean erabaki irmoa hartu zuen bere inguruekiko hizkuntz ohiturak aldatzea.

Aitorrek zionenez hurrengo hilabeteen hogeita bosten bat saiakera egin zituen lagun ta ezagunen artean eta ia guztiak arrakastatsuak gertatu ziren.

Egia da hasiera batean harremana hoztu egiten dela eta elkarrizketek artifizialtasun kutsu nabarmena dutela. Baina harrigarriena zera da, tarte hori oso laburra dela, hamabost egun pasa ondoren zeharo arraroa egiten dena alderantzizkoa baita, gaztelaraz aritzea alegia.

Kontua da honelako erronka batean inolako babesik gabe murgiltzea nekezegia suerta daitekeela, bereziki ingurunea gehienbat erdalduna bada. Zentzu honetan, euskara lan ildo zabala dutela iruditzen zait, orain arte, orokorrean lehenetsunak beste arlo batzuetan jarri izan dira eta. Garrantzitsua da oso, herri aldizkari edota

irratia abian jartzea, ezinbestekoa kulturgintzan era iraunkor eta sakonean jardutea, beharrezkoa jaietan txosna jartzea... Badirudi argi dugula zein den jarduera hauen guztien helburua, hau da, euskaldunon konpaktazioa lortzea eta erabilpena suspertuko duen giro horrek ez dakar inongo hizkuntza ohitura aldatetarik edo dakartzanak oso oso mugautak dira denbora espazioan. Beste alde batetik elkar ezagutzen duten euskaldunen ohiturak aldatu beharrean, sekulako ahaleginak egiten ditugu konpaktaziotik at dagoen balizko hiztunaren bila. Hainbeste izerdi, diru eta burukomin eskatzen duen girotze lanari ez badiogu aldi berean norbanakoaren konpromiso finkoa gehitzen, nekez sendotuko dugu erabilera.

Iruñeako Karrikirin argi dakusate arazoa: "Arlo pribatua da euskaldunok antolatzeke ahalmen handiena duguna. Gertuko komunitatean harremanak euskalduntzea da gure ardura eta ekinbidea, ezagutzatik EGUNEROKO erabilerara jauzia egiten ezin asmatutik baitago hainbat jende. Euskara elkartei dagokigu harresi hori gainditzeko behar den laguntza eskeintzea, lortu dutenean esperientziak ezagutaraziz, talde naturale-tako jendearekin arazoari buruz berba egiteko bilduz eta, funtsean, gai honen inguruan ikertu duen Pello Jauregiren mezu baikorra lau haizetara zabalduz:

**BADAGO HIZKUNTZA OHITURAK
ALDATZERIK!!**

Naturaren isladak



ERREA



Uda honetan benetako oihana ezagutu nahi baduzu, Peruko Madre de Dios departamenduan baduzu horretarako aukera. Javier Salazar gasteiztarrek munduko bazter eder horretan Inapari izeneko aterpea eraiki zuen Amazoniaren sekretuak ezagutu nahi dituenaren mesedetan; hara hurbiltzen bazara, ez zara damutuko, benetan.



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Argitarapen Zerbitzua

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

4.orr



*Geu Azoka,
Termometroa..*

6.orr



Laburretan

8.orr



*Eneko
Etxebarrieta*

11.orr



*Oihana, ezezagun
bandi hori*

15.orr



*"PITI PATA"
aldizkaritxo*

18.orr



*Nortasundun
marrazkiak*

21.orr



*Siboriri
elkarriketa*

23.orr



*DI-DA:
Juan Karlos Najera*

24.orr



*Kepa Aguirre.
Musika egilea.*

26.orr



*Diskoak.
Doors...*

28.orr



*Kultur
Ajenda*

30.orr



Komikia: Txeroki

Geu Gasteiz, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a - Telefona eta Faxa: 945 22 21 53

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño eta Estitxu Breñas. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

Argazkiak: Edorta Sanz. **Maketa:** Izadi Editoriala. **Komikia:** Inigo Sarasola.

Naturaren Isladak: Conrado Tejado. **Kolaboratzaileak:** Pedro Zuberogoitia, Inaxio Lpz. de Arana.

Publizitatea: Karlos Fdez. de Betoño. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 · Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzunkizunik.

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

.....945 112

UDALTAINGOA:

.....945 092

INFORMAZIOA:

.....945 010

SUHILTAILEAK:

.....945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

.....945 22 22 22

D.Y.A.:

.....945 28 10 20

ERITXEETAKO URGENTZIAK:

.....945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

.....945 25 84 00

RENFE:

.....945 23 02 02

AIREPORTUA:

.....945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

.....945 28 20 00

HIRI-BABESA:

.....945 16 11 61

UDALETXEA:

.....945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

.....945 18 18 18



Kan Groak

Haurrak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Nekane	945 26 91 53
Eduardo	945 14 21 99
Leire	945 27 32 81
Lorena	945 27 10 13
Ainara	945 24 04 42
Ana	945 26 65 95
Eriete	945 29 96 50
Estitxu	945 27 65 07

Idoia	945 24 47 79
Lorena	945 27 10 13
Montse	945 26 78 12
Ainara	945 23 38 28
Txaro	945 28 08 85
Maidar	945 24 90 62
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Uxue	945 24 37 11

ARRATSALDEZ

Oihana	945 25 30 35
Aintzane	945 27 09 64
Iratxe	945 24 51 81
Ainara	945 23 38 28
Lorena	945 27 10 13
Patrizia	945 27 78 19
Leire	945 23 12 23
Maidar	945 24 90 62
Estitxu	945 27 65 07

GAUEZ

Esther	945 27 84 57
--------	--------------

ASTEBURUAN

Olatz	945 25 61 20
Montse	945 26 78 12
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Leire	945 23 12 23
Jose Angel	945 27 62 14
Saida	945 26 58 05
Idoia	945 24 47 79
Maidar	945 24 90 62
Belen	945 13 65 10
Monika	945 13 86 21
Itziar	945 13 86 21
M. Jesus	945 13 54 35
Estitxu	945 25 99 60

Geu Gasteizek ez du sail honetan sortzen diren harremanen ardurarik hartzen



Gasteiz bero-bero

Apirilaren 24ko Udal Kazetan Udalak onartutako Kale Izendegia argitaratu zen. Bertan Gasteizko kaleen zerrenda euskaraz eta gasteieraz agertzen zaigu. Euskaltzaindia, Gasteizko Udala eta GEU Gasteiz Euskalduna Elkartearen arteko elkarlanari esker posible izan da berau kaleratzea. Orain erabiltzea baino ez da falta. Anima zaitezte, beraz!

Duda Muda zerbitzua gogoratzuz

Duda Muda zerbitzua euskararen bilakaerarako garrantzitsua delako, sutondora ekarri dizuegu berriro gogoan izan dezazuen. Administrazioako eguneroko lanean ari zarela, eta itzuli edota idazteko orduan zalantzak suertatzen zaizkizula..., ez "burua jan" (...egokia izango ote da?) eta idatzi helbide hauetako batera, zure datuak ere zehaztuz erantzuna jaso ahal izateko: DUDA MUDA-Faxa: 945 18 76 03/ E-mail: webivap@ivap.es

E. B. Z.

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

Geu-Azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALMENTAK

Logela baterako bi alfonbra ditut salgai, berdea da kolore nagusia, garbitu berriak daude eta beste hirugarren bat oparituko dut. Salneurria: 10.000 pta. 945 22 73 03

UFESA den airegailu txiki bat daukat salgai, aire hotza eta beroa ematen du. Salneurria: 2.500 pta. 945 22 73 03

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat. - 945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarreran ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da. 945 22 73 03 Maite

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria: 60.000. - 945 22 73 03

Trono itxurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa. Salneurria: 12.000. - 945 22 73 03

49 c.c.ko ziklomotorea dut salgai. Salneurria: 25.000 pta. - 945 14 54 90

DEIAK

Datorren ikasturtean ume bat zaintzeko pertsona bat behar dut, orduren batean goizez eta ordu batzuetan arratsalde. Maite. 945 22 73 03

Ohiko osasun sistemam asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasuna-

ren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapataria kalea, 29 alokatzen dut

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana

BESTEAK

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172850.

FOTONOTIZIA

1999ko apirilaren 29an goizeko 8etan Juanito Oiarzabal (Juan Vallejo eta Eneko Pourekin batera) arabarrak bere azken "zortzi milakoa" igotzea lortu zuen. Horrela oso talde berezian sartu da, beste 5 mendizale besterik ez baitute lortu marka horri eustea. Hori dela eta, Geu Gasteiz aldizkaritik:

ZORIONAK, guztioi!!!



estilorik *handiena*
edozein *ikuspegitatik*

Goza ezazu eguzkitako
bataurrekoen moda osoaz.
Eta orain, eguzkitako
bataurreko
graduatuak... **8.900 pta.**
tik aurrera.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik Andre Maria Pzan:
5.00 - 8.30



www.multioplicas.com
Gasteizkoan arratsaldeko telefonoa: 900 34 35 36.

3.374 biztanle gehiago

Estatuko estatistika erakundeak argitaratu berri dituen datuen arabera duela urtebete baino 3.374 pertsona gehiago dago Arabako erroldan izen emanda. Horrek zentsuaren %0,98aren hazkundera erakusten du. INEk Arabak bizi omen duen hazkunde ekonomikoan oinarritu da populazio gehitzea azaltzeko.

3.000 biztanle berri horietako 2.293 Gasteiz bertara etorri dira, hiriburuak herrialdean duen pisua sendotuz. Hazkundera nabaritu dute ere Gasteiz inguruko hainbat herri txikiak, hiriburuko pisuen prezioek behartuta lagun askok hara jotzen baitute, gazteek batez ere. Zehazki esateko Arabako erroldan izen ematen duen populazioaren bosten bat Gasteiz inguruko nekazari eremuetan kokatzen da.

Duela urte bete baino biztanle gehiago dutenen artean Amurrio da Gasteiz eta gero populazio gehien irabazi duena, 595 hain zuzen. Gehiketa hau Aiarako hiriburuaren kaltean izango zen agian, zeren Laudio 219 biztanle galdu baititu. Bastidak iragan urtean baino 95 biztanle gehiago ditu, Zuiak 127 eta Zigoitiak 75.

Populazioa galdu duten herriak berriz 33 dira eta biztanle gehien galdu dituenak Laudio izan da.



Telebistari loturik

EUSTATEk kalertatutako datuen arabera telebistari eta bideoari lotuta ematen dugu gasteiztarrok gure aisialdiaren zatirik handiena. Eguneroko orduen banaketari buruzko ikerketa egin eta gero arabarrek, eta euskaldunek, nahiko ohitura egonkorak dituztela ondorioztatu dute. Telebista ikustez gain jaialdietara eta dantzalekuetara joatea eta osteratxoak egitea dira arabarrek aisialdirako gehien maite dituzten ekintzak.

Lan egun arrunt bat minutuz minutu aztertuta 11 ordu eta erdi pasatxo ematen du



arabar batek oinarrizko beharrak betetzen: lo egiten, jaten, norbere buruaren garbiketan. Sei ordu lanean, ikasten, etxeko lanak egiten etabar; ordu-bete eskasa lagunekin, aurrez aurre edo telefonoz, eta 70 bat minutu leku batetik bestera joaten, lane-tik etxera, etxetik eskolara, 24 orduak osatzeko falta diren 4 orduak kirola egiten, telebista ikusten edo irakurtzeko erabiltzen dituzte.

Gizon eta emakumeek lana eta aisialdia banatzeko desberdintasunari buruzko alderik handiena etxeko lanei eskaintzen zaizen denbora izaten da. Oraingo honetan bitxitasun bat jakinarazi du EUSTATEk: egun emakumeek gizonak baino denbora gehiago ematen dute txikiteoan edo lagunekin tabernetan.

TXUSTIA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23



eguneko menua



Elgeako parke eolikoaren etorkizun eta ustirapenari buruzko azken erabakiak hartzeke daudenean EHuko irakasle talde batek Eusko Jaurlaritzaren plangintza mendi tontorretako babeserako planaren aurka doala eta beraz, ilegala dela esan du.

Inguruko biztanleek eta talde ekologistek Elgean parke bat baino argindar ekoizketarako industria bat ezarri nahi dela eta enpresa talde handien (BBV, Iberdrola, Gamesa,...) interesen aldeko lana egiten dela salatu dute.

Barrutia inguruko biztanleek eta ekologistek tramite guztiak presaka egiten ari direla nabarmendu dute, eta denbora aurreratzearena arrazoi garbi bat du: Elgea-Zaraia parke naturala izendatuko bazuten aerogeneradoreen ezarpenak muga zehatzak izango zituen.

Duela hilabete inguru Diputazioak Eolicas de Euskadi taldeari eman zion egingo den parkea ustiratzeko eskubidea eta Barrundia Udaleko HBk prozesu horretan, lurrak ematearen prozesuan, legea ez dela bete azaldu du. Eolicas de Euskadi empresako bazkide nagusiak BBV eta Iberdrola beraiek dira eta talde abertzalearen iritziz daukaten asmoa Arabako parke eolikoaren monopolioa lortzea da.

iTURRIETA

Sagardotegia

Txotx egin !

*Astelehenetik asteazkenera enkarguz.
Ostegunetik igandera zabalik*

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

Pub ibiltaria kantari berriro



Oskorri taldeak "The pub ibiltaria" esperientziaren hirugarren atala martxan jarriko du maiatzaren zehar. Egileek kontzertu demokratiko moduan definitzen dituzte kantaldi berezi hauek eta ikuskizuna jadanik ezaguna dena izango da: Oskorrik abesti ezagunak kantatuko ditu biltzen diren ikusleekin batera zuzendutako karaoke berezi xamar batean. Musika tresnaren bat jotzen dutenei ere gonbitea egiten dakitena jendaurrean erakusteko eta euskalki guztietako kanta herrikoek hizkera aberasteko ere balio dezakete.

Oskorrik aukeratutako kantak lagunarteko parrandan edo afalondo batean entzuten diren horiek izaten dira. Oraingo honetan hamazazpi kanta proposatzen ditu taldeek guztien artean abesteko, besteak beste Ardo gorri nafarra, Ziburutik Sarara eta Aitorren hizkuntz zaharra.

Lehenengo bi urteetako esperientziek animaturik jarraitu dio Oskorrik duela pare bat urte hasitako bideari eta aurrerantzean ere formato horretako kontzertuak lantzen jarraitzeko asmoa agertu du, urte batzuren buruan kanta herrikoien errertorio zabala plazaratzeko helburuarekin.

The pub ibiltaria maiatzaren bakarrik ibiliko da martxan, beraz taldearekin kantatu edo kontzertua antolatzea nahi dutenek hilabete honetan bertan daukate aukera.

Haur euskaldunak

Aurrematrikulazioaren lehenengo datuak ezagutarazi direnean datorren urtearako hezkuntza ez unibertsitarioan Arabako ikastola eta eskoletan ikasiko duten 33.356 ikasle-en artean 21.335 B eta D ereduetañ arituko dira. A ereduan ikasiko dutenak 15.000 baino gutxiago dira.

Azken urteetako ildoari jarraituz, eredu euskaldunen aldeko zuloa are handiagoa da haurrik gazteagoetan, 3 urtekoetan alegia. Horrek euskal ereduaren aldeko daturik baikorrena markatzen du, Hezkuntza Saileko ordezkariak adierazi zuten lehengo urtean aukeratzen den eredu eskolaratze bizitza osoan izango denaren adierazle baita.

Adin gehiago dutenen kurtsoetan eredu euskaldun eta erdaldunen arteko aldea ez da txikieneretan bezain handia, baina A ereduak urtez urte ikasleak galtzen ditu. Aurtengo datuak 1997koekin alderatuz eredu erdaldunak atzera egin du maila guztietan.

Aipatutako datuekin Arabak EAEko ereduaren hildoari jarraitzen dio: datorren irailean ikasturte berria hasiko duten guztien artean %57ak aukeratu du D eredu, %32ak B eta %11ak A ereduaren eman du izena.



Bakearen aldeko lanuztea

Euskal Herriko gainontzeko herri eta hirietan bezala Gasteizen ere "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" lelopean Lizarra eta Garaziko Ituna sinatu zuten alderdi, sindikatu eta elkartek deitutako ordubeteko lauuteak erantzun zabala izan zuen apirilaren 12an.

1.000 pertsona baino gehiago bildu zen Andra Mari Zuriaren enparantzan eguerdiko hamabietan, eta lanuztea egin zuten gehienek lantegi, eskola eta lantokiaren aurrean elkartuta eman zuten hamabietatik ordu bata bitarteko denbora.

Ekimena deitu zutenek etxean geldituta bakea ez dela lortzen azpimarratu eta gogor kritikatu zuten politikoen artean nabaritu ziren hutsune nabarmenenak, José Angel Cuerda alkatea eta M Jesús Aguirre alkategaia hain zuten.

Antolatzaileek azaldu zuten lanuzteak erantzun handia izan zuen erakunde publiko, lantegi eta banku eta aurrezki kutxetako langileen artean, eta baita hezkuntza arloan ere.

Trebiño arabarraren alde

Trebiño arabarraren aldeko plataformak antolatuta erakusketa, hitzaldi eta ekitaldiak egin ziren herrialdeko zazpi koadrilatan Prudentzio Deunaren jaien inguruan. Taldearen helburua Trebiñoren auziaren aldarrikapena eta jaia uztartzea izan zen, jendari trebiñotarren borondatea betetzeko beharrezkoa den lanean inplikatu daitezen animatzeko. Era berean, eta hauteskundearen atarian gaudela aprobetxatuz, alderdi politikoek auziaren inguruan duten jarrera argi eta garbi erakuts dezatela exigitu zuten.

Hitzaldi eta erakusketekin batera janari degustazioak antolatu du Trebiño arabarraren aldeko plataformak. Izen handiko sukaldarien laguntza izan dute lan honetan eta Agiriano, Oleaga eta Bastidak Trebiñoren izena eramango duten plater bereziak prestatu zituzten bertako osagaietan oinarrituta.

26, 29 eta 30ean Gasteizen burututako ekitaldien ostean Trebiñoren aldeko ideia koadrilaz koadrila eramateko asmoa du taldeak.

Itzulpengintza aztergai

Gasteizko Udalak antolatutako "Hoy con..." zikloaren barruan itzulpengintzari buruz egindako itzaldiak GEU GASTEIZ aldzikari eta GEU elkarte lagun eta kolaboratzaile bat izan zuen gidari: Inaxio Lopez de Arana itzultzailea.

Itzultzaile gasteiztarrek zuzendutako mahainguruaren abiapuntua euskara gozatzeko, sentitzeko, pentsatzeko, lan egiteko eta amesteko guztiz hizkuntza baliagarria dela izan zen.

Inaxio Lopez de Aranaren zuzendaritzapean Oier Alonso, Pedro Diez de Ulzurrun, Mikel Garmendia eta Gerardo Markuleta aritu ziren, guztiek itzulpengintzan arituak besteak beste. Informat argitaletxearen ekimenez itzuli eta argitaratutako "kontakizun fantastikoak" bildumaren aurkezpena egiteaz gain, egungo itzulpengintzari buruz zer pentsatzen duten azaldu zuten.

Era berean, literaturari buruzko bere iritzia eman zuten, azalutakoaren arabera bai jatorrizko hizkuntzan irakurritakoa zein itzulpenek bizimodu jakin bat bermatzen dute, balore humanistak nagusi duen bizimodua.

Bildutakoek literaturari buruzko bere iritzia ere emateko aukera izan zuten.



BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK

berreskuraturiko egurrez eginak

eta OSAGARRIAK

artisans lanak, lorategi eta

barrualdeko-proiektuak egiten ditugu

Errementari kalea (Herre) 38, behea tfnoa.: 945 25 25 03 - 01013 GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

Aumategi eta Mugarriluze

Araba eta Gipuzkoa elkartzen dituen Elgea-Urkila mendilerroa hautatu dugu maiatzeko txangoa egiteko: sinplea, laburra, baina gustagarria, oso. Zorigaitzez, ez du mendi inguru honek etorkizunean horrela iraungo. Izan ere, berehala hastekotan dira hortxe, hain zuzen, parke eolikoa edo haize errota multzo handia eraikitzen. Mendizaleon pena! Goza dezagun behingoz, ibilaldi hau, eta ikusitakoa gorde memorian!

Elgea herriskatik abiatutik, bertara itzuliko gara bi gailur bisitatu ondoren: Aumategi (1191 m.) eta Mugarriluze (1109 m.)

Hasierako aldapa. Elgeako azken etxetik abiatu orduko, haritz, pago eta pinadi arteko bidea hartuko dugu, gorantz, dena aldapa, aldapa tematsua. Laster etxola baten hondakinen ondotik pasatuko gara eta beranduago basoa utziko dugu eskuin eginez. Nekearen artetik, atzera begiratzeak jadanik bihotza beteko digu: Arabako herri, urtegi eta mendiak ikusten dira hortik, garbi.

Orbeko putzua. Horra iristean, mendilerroaren gainean izango gara,



Mugarritz mugarri: Aumategirantz, ttipi-ttapa...

Gipuzkoa eta Araba uztartzen diren tokian. Orbeko putzua bitxia da eta polita bere xumean; gelditzera gonbidatzen gaitu. Hor egingo dugu hamaiketako, baina geroxeago, Aumategin egon ondoren.

Mugarritz mugarriko bidea. Oin azpian soropila, txilarra bide bazterrean, gora segituko dugu, Aumategiko aurpegi borobila aurrean dugula. Zabaltasuna izugarria da, panoramika, liluratzekoa. Aro ederra izanez gero, Toloñoko mendiak eta Demanda mendi katea ikusiko ditugu hego aldera, urrun. Atzera begiratzean, berriz, Gorbeia eta Lekanda; iparralderago Orixol eta Anboto. Eta gure ezkerraldera: hor, Arabitako txabolak; han, Udalaiz, Kurtzebarri, Arlutz, Andarto, Orkatzategi. Aurki Aizkorri katea eta Aratz agertuko zaizkigu. Baina kontuz haizearekin! Eremu honetako errege da. Gero eta gorago, orduan eta erregeago.

Zutarria. Aumategigainatik landa, beheiti, bide beretik. Orbeko putzuan hitzartutako hamaiketako burutu eta segituko dugu Mugarriluzeko mendi-buzoiraino. Pixka bat mendebalderago, hantxe agertuko zaigu, tente, Mugarriluze, izen bereko zutarria. Merezi du ikustea.

Hortik aurrera, Araba aldera dagoen mendi mazeletik jaitsiko gara ote arteko bidexka batetik, gora eraman gaituen pistarekin bat egin arte. Gainerakoa beherantz, beti, Elgearaino.

"Maiatzak euria laket" dio erre-frauak. Beste honek, aldiz, "Maiatzaren eguzkiak kiskaltzen". Ez jakin, haatik, maiatzaren 23ak bietariko zeini emango dion arrazoi. Denetarako prest etorri, beraz, badaezpada. Hamaiketako ez ahortzi, eta badakizue, bederatzi eta erdietan elkartuko gara, beti bezala, Txapela tabernaren aurrean.

Maite Mendiburu



Makilen Bidea: apirilaren 4an, makila Aumategiko tontorrean trukatu genuen arabarrok

GEUREKIN MENDIRA

Aumategi (1.191 m.)
Mugarriluze (1.190 m.)

IRTEERA:

Goizeko bederatzi eta erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Autoz.

ITZULERA:

Arratsaldeko hirurak aldera.

Maiatzak 23

Edozein argibidetarako
deitu telefono honetara:
945 28 23 16 (Maite)

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

GASTEIZ-ISTANBUL-GASTEIZ "TAORMINA"

Kaixo lagunak!!

Calabria, 1999ko martxoaren 31n

Zer moduz dena? Hemen jarraitzen dugu lagunak eta biok. Bidaia hasi aurretik bi gurpiletako nire lagunaren izena "Taormina" izatea erabaki nuen. Ez dakit zergatik, baina izen hori entzun nuenetik oso gustukoa izan dut. Taormina, semeninoa, xefea, ederra... Bidaiaren lehenengo egunean "Taormina" gainean poltsa guztiak, 40 kilo inguru, jarri eta jabetu nintzen hanken artean neukana munstro bat zela (zikinkeria aparte utzita) eta berehala aldatu behar izan nion izena nire lagun maiteari.

Horrela "Titanic" jaio zen eta gazela hipopotamo bihurtu zen. Gero, bidaiaren barrena, bi izaera dasberdin somatu ofi ditut berarengan; gehienetan "Titanic", eta beste batzuetan, norabait joateko poltsak kendu izan dizkiodanean, "Taormina" bilakatzen da.

Gaur, denbora nahikoa iraganda, bi hilabete hain zuzen, "Titanic" eta "Taormina" parekatzen ari dira, eta hiorrek pozten nau, gero eta hobeago sentitzen naizela esan nahi baitu...

Taormina izena lehen aldiz entzun nuenean biziki gogoko izan ninduen "El gran azul" filmean izan zen: itsasoa, zerua, urdintasuna, itsas urdeak, musika... Taormina zeritzan filme honetan agertu herria, Sizilian kokatua.

Bidaiaren ibilbidea prestatzen aritu nintzenean Taormina hautatu nuen, jakina. Eta pasa den astean nire ametsetako bat egia bihurtu zen. Politu bai, baina turistaz gainezka. Ez nuen giro hura espero. Apur bat dezepzionatua herria miatzeari ekin nion, eta hura sorpresa! Antzoki grekoak liluratua utzi ninduen. Harrigarria benetan! Haitz baten gainean eraikia, eszenatokiaren atzetik altxatzen dira dotoretasunez Etna sumendia alde batera, eta kostaldea, itsasoa, bestera. 3 ordu eman nituen bertan...

Zaintzaileak "esnatu" ninduen eta errealtatera jaitsi nintzen. Eta, pozarren, paisaia grekoak indarberritu baininduen, kanpinera abiatu nintzen hurrengo eguneko prestatzera.

Orain Calabrian nauzue. Bihozminez esan nion agur Siziliari. Italiara ikasten dihardut, bestela...

Musu handi bat Geu Gasteizko lagunei, eta laster arte!

Eneko Etxebarrieta

Hau da Enekok ibilitakoa orain arte: Gasteiz-Marseilla-Korsika (Bastia-Porto Vechio-Bonifacio)-Italia; Sardinia (Sta. Teresa di Gallura-Olbia-Siniscola-Oristano-Cagliari); Sizilia (Palermo-Selinonte-Agrigento-Siracusa-Catania-Taormina-Messina); Villa San Giovanni, Vibo Valentia, Paola...



MERKURIO-KADMIOMI
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1
Tfnoa: 945-26 44 32
01002 - GASTEIZ

OIHANA

Uda honetan benetako oihana ezagutu nahi baduzu, Peruko Madre de Dios departamenduan baduzu horretarako aukera. Javier Salazar gasteiztarrek munduko bazter eder horretan Iñapari izeneko aterpea eraiki zuen Amazoniaren sekretuak ezagutu nahi dituenaren mesedetan; hara hurbiltzen bazara, ez zara damutuko, benetan.



Perun Javier Salazar gasteiztarrek aterpe bat eraiki zuen oihanaz gozatzeko

Enborrez eginiko baltsa batean ibaitik jaistea, pirainak harrapatzea, animaliak zein landare bitxiak aztertzea, oihana zeharkatu bitartean, bertako indigenekin harremanetan jarrita, gauean euren istoriak entzutea sutondoan... ez dira ume baten ametsak, Iñapari aterpetik abiatuturik egin daitezkeen jarduerak baizik.

Oraindik gure munduan egon badaude leku zoragarriak, ezagutzea merezi dutenak. Javier

Salazarrek ondo ezagutzen ditu Amerikako gunek guztiak. Hamar urtez kontinentea aldenik alde zeharkatu ondoren Peruko Madre de Dios departamenduko Tambopata eskualdearekin maitemindu zen. Betidanik oihanak xarma izan du berarentzat eta "Tambopatan oihanak oraindik eusten dio bere izaerari".

Tambopata pairatzen ari den zampaketa ezin da inola ere Amazonia nozitzen ari denarekin



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

ARTEPAN



*Artisan
Okindegia eta
Goxotegia*

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

HAUEK ERE BAI...




...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltegi eta barnetegiari

parekatu. Eskualde hau Peruko bio-dibertsitatearen hiriburutzat ezezik gizakiaren ondare ekologikotzat ere jo dute. Abizen hauekin gune honek duen balio ekologikoa ezin kalkula ahalakoa dela dirudi. Oraindik ere Tambopatan badaude gizakiak sekula zapaldu gabeko lekuak. Hori dena kontuan izanda, argi dago toki honek bisitatxo bat merezi duela. Eta nola hobeto, Iñapari aterpera joanda baino. Nahiz eta jatorriz Gasteizkoa izan,

Javier bihotzez oihanekoa da. Puerto de Maldonadotik (Madre de Dios departamentuko eta Tambopatako eskualdeko hiriburua) zazpi kilometrora eraiki zuen bere aterpea, non bera, bere familia eta bere adiskideak bizi baitira.

Aterpeak erosotasun guztiak dauzka, 23 laguntzako tokia, jaki goxoak, telefonoa, argia, ura...; lasai bizi daiteke bertan. Egondialdiak normalean 15 egunekoak izaten dira.

Indigenak eta "Ayahouaska"



Iñapartik ibaian zehar abiatuta, oihaneko indigenekin harremanetan jartzea ere badago. Indigenen ohiturak gainetik ezagutzeko oso interesgarria izan daiteke irteera hori. Euren dantzak, kontakizunak, jaiak, artisautza produktuak... Madre de Dios departamenduan 70.000 pertsona bizi dira. Horien %5a baino ez da indigena. Etorkinak Peruko beste eskualde batzuetatik etorri dira "gobernua nolabait engainatuta, oihanean denetarik aurki daitekeelako zurrumurrua zabaldu baitzen. Hona heldzean, berriz, errealitate gordinarekin, pobreziarekin, topo egin dute". Bestalde, indigenak 30 bat komunitatetan bizi dira ibaien ertzeetan, bizimodu duina dute eta ez dira ondo moldatzen etorkinekin. Iñapari aterpekoek bi komunitate indigenarekin hitzarmena sinatu dute turistek bisita ahal dituzaten. Indigenei turismoaren dirua ondo datorkie, euren bizibideari nolabait eusteko.

Javier indigena hauekin oso esperientzia ederrak izan zituen "ayahouaska" edaria dastatzean. Edari hori ezaugarri bereziak dituen landare batetik lortzen da. Edan aurretik errito batzuk bete behar dira. Zaporea ez omen du batera atsegina, ez du menpekotasunik sortzen, baina edan ondoren irudimena puztu egiten da, burua beste garai eta toki batera eramanez. Ametsak errealitate bihurtzen dira edari horrekin, benetan gertatutakoak bailiran. Javierrek eskaintza hau egin nahi die turisteei, baina saio hori bideratzeko edo, behar-beharrezkoa da indigenen komunitateko aditu baten laguntza, arazorik sor ez dadin.

Harrera ona egitea, lehenengo araua

Javierren aterpera heltzeko derri-gorrezkoa da hegazkina erabiltzea, gainera, eskualde horretako aire-portua Iñapari aterpetik 500 metro-ra dago kokatuta. Errepidetik joatea itzelezko abentura izan daiteke. Madre de Dios departamendua Euskal Herriko Hegoaldearen halako bi izan arren, oso kilometro gutxi dauzka asfaltaturik. Bide gehienak lurrezkoak izateaz gain, harriz josita daude. Cuzcotik Puerto de Maldonadora bitarteko 540 kilometroko tarte egiteko, esaterako, hiruzpalau egun behar dituzte. Horrexeagatik, Javierrek oporretan hegazkina hartzen du, inolako zalantzarik gabe.

Javierrek argi zeukan nola bizi nahi zuen. Betidanik ibilia izan da bidaletan eta aterpea eraikitzean aurkitu zuen bere bizimodua. "Ez du ematen aberatsa izateko adina dirurik, baina ni horrela zoriontsua naiz, horrela nahi dut bizi". Ekainetik urria arte turistekin dabil leku bate-tik bestera. Oso goiz altxatzen dira, eguna behar bezala aprobetxatzeko.



Iñaparin bizi izanda oihanaren mitoak hausten dira

Javierrek berak eta Panchok, berarekin lan egiten duen indigena gazteak, ibilbideak prestatzen dituzte, Iñapari aterpean ostatu hartzen duten abenturazaleek oihanaren sekretuak ezagutzeko. Normalean egun batekoak izaten dira, baina egun gehiagoko irte-erak ere badaude eta denetarik egiten da: oihanetik txango bat egin; erraz hazten diren zuhaitz batzuk moztu; baltsa bat egin ibaitik aterpera itzultzeko; ibaiaren ertzeetako amildegietan guakamaio txoriak nola elkartzen diren ikusi; pirainak harrapatu Sandobal izeneko laku batean...

Egia esan "zineak eta telebistak mito faltsuak sortu dituzte oihanaren inguruan, oso arriskutsua dela eta hori dena. Baina ez da horrela, pixka bat adi ibiliz gero, mito horiek guztiak desegin egiten baitira. Arriskua edonon sor daiteke bai oihanean, eta baita edozein hiritan ere" esan du Javier Salazarrek. Iñaparin egonaldi bat egin ondoren, dudarik gabe, oihana hobeto ezagutuko duzue. Orduan ez larritu egunen batean, hor egonik, tarantula bat ikusten baduzue lasai-lasai. Armiarma horiek mesede handia egiten dute, aterpea intsektu eta ugaztun txikiez garbi mantentzen dutelako. Egia da bere ziztada arriskutsua dela, baina zirikatu ezean beldur hori sobera dago.

Turistarik ez dagoenean, ostera, landareekin denbora handia ematen du, hirira joaten da... Javier pozik

dago, eta Gasteizko norbait egonaldia bat pasatzera joaten denean pozago, noski.

Nagusiki kataluniarrak, estatubatuarak, euskaldunak, suitzarrak eta alemaniarak dira aterpean ostatu hartzen duten turistak. Hainbat jenderekin bizi denez, bere lanean garrantzi handia ematen dio giza-harremanak lantzeari, "bizimodu honek jende asko ezagutzeko bidea ematen dizu: horixe du aberastasunik handiena" adierazi du Javierrek. Iñapari aterpera joanez gero, etxean bezala sentituko zara, dudarik ez.

Raul Saez de Buruaga
Javier Salazar



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

Euskal Herrian okela ona dugu



Informazio gehiago telefono honetan

901 50 55 55*

* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela
duen abelgorri okela **osasuntsu,**
zaporetsu eta naturala.



EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA

Labeldun okelen
salmentan duten
espezializazio maila
handia dela eta, ikur
honekin (►) adierazitako
Harategi Baimenduek
**ARTISAU ERAKO
HARATEGI
ESPEZIALIZATUEN**
saikapena dute
Kalitateko Eusko Labela
duten produktuetan

VITORIA-GAZTEIZ

- CARNICERÍA MÁXIMO SANCHEZ
Portal de Villarreal, 2
- CARNICERÍA ELVIRA
Fernández de Leceta, 1
- CARNICERÍA HNOS. MTEZ. DE ALEGRIA
Cuba, 3
- CARNICERÍA HNOS. MTEZ. DE ALEGRIA
Enrique Eguren, 5
- CARNICERÍA MARQUINEZ
Adriano VI, 11
- CARNICERÍA SANTI AIZPEOLEA
Paraguay, 17

CARNICERÍA AIZPEOLEA

Mercado de la Florida, 19

CARNICERÍA J. L. GARMENDIA

Andalucía, 13

CARNICERÍA AIZPEOLEA

Mdo. Abastos Ptos., 2-3

Pza. S. Bárbara

CARNICERÍA WENCESLAO ACEBO

Mdo. Abastos, 26 Pza. S. Bárbara

CARNICERÍA LASAGABASTER

Portal del Rey, 24

CARNICERÍA ELVIRA

Coronación, 9

CARNICERÍA ELVIRA

Hortaleza, 12

CARNICERÍA ELVIRA

Siervas de Jesús, 37

CARNICERÍA FERNANDO ARRONIZ

Ariznavarra, 2

CARNICERÍA J. IZAGIRRE

Mdo. Gasteiz, Puesto, 11

(Abendaño, 46)

CARNICERÍA MIGUEL ARRONIZ

Jose Mari Olarte, 23

(Lakua, 5)

CARNICERÍA ELVIRA

Los Isunza, 3

CARNICERÍA GENARO

Mercado Arana. (Plaza Aranzabela)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA AMADO

Juntas Generales, 27-29

(Lakua, 13)

EL CORTE INGLES S.A.

La Paz, 2

CARNICERÍA HNOS. ONECHA

Pintor Vera Fajardo, 6

(Los pintores)

AMURRIO

CARNICERÍA ALAVA

Elejondo, 10

ARAMAIO

BIXENTE L. AZPILIKUETA

HARATEGIA

Bixenti Goikoetxea Plaza



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



Maiatzeko **LAGUNA** IRATXE IRRISTALARIA (9 URTE)

Irristailuetan ibiltzea astialdiko iharduera berri bat ez da,
hiriko parkeetan zein kaleetan gero eta arruntagoa da
neska edo mutil bat irristatzen ikustea.

Iratxek denbora pasa honetan urte pare bat darama eta momentuz
ez du sekulan aldatuko. Lagunekin elkartu eta abiaduraren
laguntzaz lasterketa edo saltoka dihardute. Dena den saltoak ez
dira gustukoenak berarentzat, lasterketak egitea maite du gehiago
abiadura sentsazio atseginagoa baita.

Itziar Uriarte Fdz. de Troconiz

UDALEKUAK PREST, ZUEK?

Gure haurrek udari itxaroten dioten bitartean, urtero bezala udalekuak dauzkagu eskaintza dibertigarrien artean. Araban, Zuhatzako irla, Barria, kosta aldeko, Zarautz, Orio, Hondarribia.... dira uda primeran pasatzeko hautagai batzuk.

Honetaz gain, Espejoko aterpetxean badago udaleku berezi bat ingelesa erabili eta ikasteko aukera eskaintzen duena.

Bidaiak maite dituztenentzat ere aukera oparo daude: Hondartza; Girona edo Benicasimen, ur-kirol ikastaroekin; mendiko kirolak Pirinioetan; Santiagoko bidea bizikletaz eta ibilaldiak Europan zehar kanpinetan. Hauetan era askotako txandak daude: 7 egunetakoak, edo jolasteko denbora gehiago nahi dutenentzat 14 egunetakoak.

Iharduera ezberdinak egiteko gai izango zarete, hala nola: ur kirolak, izadiko jarduerak, mendiko segurtasun eta abentura kirolak, kultura ikustaldiak....

Beraz badakizue, joan zaitezte motxilaria hautsa kentzen, lo-zakua gerturatzen, zorrien aurkako lozioa, eguzkitarako krema, uretako gomazko sandaliak eta bainujantziak prestatzen.



Steila Bagare



Itxaso



Oihane



Jorge



Erik

GEURE ARTISTAK BARRUTIA IKASTOLA (6-8 urte)

ZER DA ZURETZAT....? ILARGIA



RUBEN, 7 URTE

Ilargia zerutik eta gauez ateratzen den gauza borobil itxuradun bat da. Han ez dago bizitzarik eta hara gizonak bidaiatxo bat egin du.



MARTA, 6 URTE

Zeruan aurkitu dezakegu. Bere itxura ez da beti berdina, betea, berria,...itxura askotakoa. Batzuetan goitik begiratzen digu aurpegi tristearekin.

RUTH, 9 URTE

Ilargia ez da mundukoa eta gaua aurkezteko puntu bat da. Han ura aurkitu da. Bere kolorea nahiko aldakorra da, tzuri eta hori artekoa.



Patxi Zubizarretaren *"Joanaren erregin aulkia"* liburuaren marrazkiak dira Agurtzane Villatek egindako lanen artean argia ikusi duen azkena.

Marrazkigileak ez daki, ez da ausartzen, bere lana definitzen, baina jadanik berea dela adierazten duten bereizgarri propioak lortu dituela uste du. Izan ere, eta lan bakoitza ezberdin egiten duela saiatzen den arren, marrazkiek beren egileen nortasuna adierazten dutela uste du.



Agurtzane Villate, nortasundun marrazkiak

Agurtzane Villatek Patxi Zubizarretarekin lan egiten duen laugarren aldia da haurrentzako *"Joanaren erregin aulkia"* liburua, eta aurretik ilustraziogintzan egindakoetaz nahiko urrun geratzen da Pamielak argitaratutakoa. Aurretik *"Mila gau eta bat gehiago"* bildumako hiru liburuetan burutu zuten elkarlana, "oso liburu sakon eta mamitsuak", Agutzanek berak dioenez. Azkena neska-mutil txikientzako izanda, lana ezberdin egiten saiatu dela azaldu du marrazkigile gasteiztarrek "beti saiatzen naiz ezberdin egiten, eta kasu honetan umeentzako izanda marrazkiak sinpleagoak ez, baina alaiagoak izan zitezten ahalegindu naiz. Aurreko hiru liburuetan gainera marrazkiak txuribeltzean izan dira, azkenengoan kolo-retan".

Lan bakoitza ezberdin egiten saiatu bai, baina ez du uste kasu bakoitze-



rako egokia den marrazki mota bat dagoenik. *"Mila gau eta bat gehiago"* sortako liburuetako ilustrazioak marraztuago, definituagoak egin nituen, gaiarekin bat zetozela iruditu zitzaidalako, baina liburu mota eta edukiaren arabera marrazkiak egiten ditut nik. Izan daiteke helduentza-

ko lan egitea, baina oso marrazki txoroak egoki ikustea".

Egindako lanaren estiloa definitzen ez dakiela, edo ez dela ausartzen, dioen arren marrazkiek bereak direla dioten zerbait dutela uste du Villatek. "Gauza bera gertatzen zait lagunen lanak ikusten ditudanean, bakoitza norena den esaten badakit, ez ordea zergatik dakidan beraienak direla". Marrazkigileen obrari buruzko teoria berezia du Agurtzane Villatek: lanek egilearen antza izaten dutela. "Ez dut esan nahi paperean agertzen den tipoa sortzailearen antza fisikoa duenik. Hori ez. Baina nolabait nortasunaren adierazle dela iruditzen zait niri".

Mila lan

Agurtzaneren lan kurrikuluma osatzeko aurretik zer lan egin dituen galdetuta, azaldutako liburuetaz

gain, mila lan txiki dituela dio: Napartheid-en argitaratu dituen komikiak, egutegiak, pegatinak, kartelak, boletok, ... eta beste lan bereziagoren bat ere: "egin dudana azken lana. Oso jende gutxi ikusiko du, baina oso lan polita da. Hilobaren gela marrazkiz apaindu dut".

Beste garai batzuetan marrazkigintzari denbora gehiago eskeini diola aitortzen du, "orain alfer samar nago eta IKA euskaltegiko lanarekin gainera denbora gehiegirik ez dut izaten".

Arlo bakoitzean (liburuen ilustrazioak, komikiak) lan dinamika nahikotxo aldatzen da marrazkigilearentzat. Literatur lan batentzako ilustrazioak egitean idazlana da oinarria eta sormen iturria. "Idazle eta marrazkilarien arteko harreman ezberdinak egongo direla imajinatzen dut, baina nik Patxiarekin lan egin dudanean berak idatzitakoa ondo ira-



kurri, pertsonaiak ondo ezagutzeko eta giroa zelakoa den jakiteko, eta gero lanari ekiten diot. Inork ez dit esan zehatz mehatz zer marraztu. Ez didate mugarik jarri".

Liburuetan lan eginda, are gehiago

ospe handiko idazleekin arituta, marrazkigilearen izena bigarren maila batean geratzen dela ematen du, "ez dut uste bereziki gure kasua denik, baina bai, batzutan idazlearen izena letra handiz jartzen da, marrazkigilearen baztertuz". Dena den, ilustradore eta idazleen arteko harreman estandarrik ez dagoela azaldu du Villatek, beti elkarrekin aritzen direnak badaude, sortutako pertsonaiak irauten duen bitartean harremana dutenak, ... "Oso marrazkilari gutxi dira honetaz bizi direnak, oso zaila delako lanen bat etorriko ote den zain egotea".

Pamiela argitaltzeak kaleratzen dituen liburu guztien estetika asko zaintzen duela azpimarratu du marrazkigile gasteiztarrek, baina egun ilustrazioak hurrei zuzendutako lanetan sartzen direla gehien bat onartu ere. "Eta ez dakit zergatik, agian umeek irakurtzeko ahalegin txikiagoa egin beharko dutelaren ustetan edo, baina niri liburu guztietarako egokiak direla iruditzen zait". Marrazkiek liburuaren kontakizuna girotzen laguntzen duela deritzo Villatek. Eta horretan arrisku bat egon daitekeela onartzen du: "agian norbaitek esan dezake pertsonaiak eta giroaren marrazki bat izanda ez zaio la norberaren irudimenari horrenbesteko tarteaz uzten, baina marrazkiak ez dira beti historiari guztiz lotuta egon behar, inguruko zerbaitek kontatu dezakete".

Diru Kontuak

Dirua ez omen da liburuetan marrazkiak ez sartzeko aitzakia. IKAKo irakasleak azaldu duenez, ilustrazioak tzuri beltzean badira kosteen gehiketa ez da oso nabarmena, "eta guri ordaindutakoa ez da horrenbesteko, askoz diru gehiago gastatzen da inprentari ordaintzeko, zabalkunderako..."

Dirua izaten da ordea helduentzako komikien arazo nagusia. Euskal

Herrian helduek oso komiki gutxi kontsumitzen dute eta, beraz, oso garesti ateratzen da horiek argitaratzea. Napartheidetik ezagutzen du Agurtzane Villatek komikigintzaren mundua eta euskarazko helduentzako komiki bakarraren dinamika horretxek baldintzatuta dagoela dio. "Bertan idazten dugunok ez dugu dirurik jasotzen eta hala ere, 400 bat pezeta balio du ale bakoitzak. Pentsa marrazkigileek kobratuko bagenu zenbatetan saldu beharko zen. Ale gehiago salduko balira, ezberdin litzateke".

Helduentzako komikiak egon badaude, baina gutxi saltzen dira eta berezia zaletasun falta hori, txikitzen, gaztetan ia guztiek komikiak irakurtzen dutelako. Noizbait etena sortzen da eta irakurtzen jarraituta ere liburuetako aukera egin ohi du jende gehienak. Agurtzaneren iritziz komikia hobeto ezagutuko bazen gehiago irakurriko zen, "komikiei buruz hitz egitean jendeak Asterix aipatzen du, eta ondo dago, oso dibertigarria da, baina horretaz aparte hainbat eta hainbat komiki mota dago, liburuetan bezala".

Napartheiderako komiki bat sortzeko orduan ez du gai kuttunik, baina bereziki gogoratzen duen ale bat badago, musika gai hartuta duela lau bat urte argitaratutako hura.



 **Leire Lopez de Aberasturi**

 **Edorta Sanz**

FERNANDO SANCHEZ ARANAZ

"Zidorzaletasunaren eskuliburua"

Infomart, 1999

"Mendiko zidorrek leku askotara eraman gaitzate" diosku Fernando Sánchez Aranaz donostiarrak Infomart argitatxearen bidez argitara emandako liburu honetan. Ezin gara, ordea, mendira edonola joan, komenigarria baita aldeztetik bidea, jantzia, materiala eta batez ere gogoia behar bezala prestatutik izatea, naturarekin egokiro bat egite aldera. Sánchez Aranazek hamaita gomendio, aholku eta iradokizun ematen dizkigu zidorzaletasuna ariketa hutsa baino askoz gehiago dela argi uzteko asmoz. Gainera, Pirinioetan zehar egindako alegiazko txangoaldi baten berri ematen digu zehaztasun osoz, Angulo mendatetik hasita Hiru Erregeen Mahaia mendiraino. Ezbairik gabe, zidorzaletasuna maite duten guztientzat liburu gomendagarria da, besteak beste, mendien deskripzio hutsetik harantzago doalako eta makina bat datuz hornitutik dagoelako.



Inaxio Lopez de Arana

1 x 2 = 2

(2.000 gara / 4.000 izan gaitetzke)

... EGIN ITZAZU HARPDEDUN

Harpidedun!:

zure aita, ama, anaia, arrebak, izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berriamona, berriaitona, biloba, aitagiareba, amagiareba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

Izen Deiturak: _____

Helbidea: _____

P.K.: _____ Tfnoa.: _____

Herria: _____

Jaiotze Data: _____

Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Geu Gasteiz Aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a
01008 - Gasteiz. Tfno: 945 22 21 53

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

Argazki -

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

AMILAMIÀ

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke TXAPELARRI TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

“Azken norgehiagoketan erabakiko da gure etorkizuna”



Orain bi urte Hirugarren Mailan jokatzen zuen Arturo Igoroinek. Bi urtetan Hirugarren Mailatik Lehen Mailara egin du salto, eta ez hori bakarrik, egun igandero jokatzen baitu, golak eginez, gainera. Ez da De Pedro edo Guerrero, baina zelaira irtetzen den partiduetan, barruan duen guztia eskaintzen du.

• Orain bi urte, GEU GASTEIZek egin zizun azken elkarriketan, ez zeunden Deportivo Alavesen hamaikakoan. Marcelo izeneko brasildar batek jokatzen zuen bitartean, zu Alaves Aficionadosen zeunden. Bi urtetan zorarena, Lehen Mailan eta igandero hasierako hamaikakoan...

- Bizitzak joan-etorri handiak ditu. Gainera, hasierako hamaikakoan sartzeko lan handia egin nuen... Gakoak lana eta ilusioa dira.

• Eta orain Athleticceko jokalaria, zorionez ala zoritxarrez?

- Egungo futbol jokariak ezin du aukeratu non jokatu. Goikoez non esan, hara joan, ez dago besterik. Futbola horrelakoxea da.

• Athleticen kontua entzutean, gauza bera aipatzen duzu beti. Gasteizen jarraitzea nahiagoko zenuke?

- Bai, noski. Halere, ez dut gai horri buruz hitz egin nahi. Denboraldia hasi baino lehen, Athleticcek zer zegoen azaldu zidan, eta nik aurtan Deportivo Alavesen jokatzeke eskatu nien. Etortzen utzi zidaten, baina denboraldia bukatzean hara itzuli behar dut berriz.

• Gola sartzen duzun guztietan, kamiseta txuri bat erakusten duzu. Uste dut joan den urtekoa dela; barkaidazu, baina zatar samarra ere bada, aldatzeko asmorik ez?

- Ez da joan den urteko kamiseta. Orain ez dut aldatuko, azken norgehiagoketan golak sartu ditut eta. Hurrengo zortzi partiduetan golak sartzen badi-tut, ez didazu zatarra dela esango.

• Beste bat erosteko orain ez duzu diru arazorik izango.

- Ez, ez naiz kexu. Ondo nago.

• Futbolak eskaintzen dizun dirua zertan inbertituko duzu? Ikasketetan ala

negozioetan?

- Momentuz, ez dut hori gogoan. Oraindik ez dut ezer egin, lanean jarraitu behar dut. Futboleko apala behar duzu izan, asko eta asko erortzen baitira.

Parranda eta Futbola

• Aldapan denbora galtzen da ala etorkizunerako inbertsio ona izan daiteke?

- Puntako jokalaria ezin da askotan parrandan ibili. Asteburuetan lasai egon behar duzu. Hori bai, 22 urte dauzkatz, eta ahal denean parranda ederrak egiten ditut. Orain mailari eustea garrantzitsuena da, Aldapakoa denboraldia amaitzearekin batera egingo dugu.

• Arturo Igoroin "Sibori" Deportivo Alaveseko harrobiak eman duen frui-



tu bakarra da azken urteotan. Ibaiako iturria agortu da?

- Nik uste dut ezetz. Alaves Aficionadosen norgehiagokak ikusten dituen zaletuak badaki beste batzuk badatozela nire atzean. Zorte pittin batez datorren urtean Bigarren B Mailan izango dira, eta errazagoa suertatuko dira fruituak. Horietako bat Asier Salcedo izan daiteke.

• Deportivo Alaveseko jokalaria ezetik Alaveszalea ere bazara, esaidazu gogoan duzun aspaldiko norgehiagoka bat.

- Txikitatik izan naiz Deportivo Alaveseko bazkidea. Oso egun polita izan zen Elgoibarkoa, taldeak han lortu baitzuen Bigarren B Mailara

"Sibori leku bat bereganatzen saiatzen den jokalaria gaztea da"

igotzea. Pentsa!, Hirugarren Mailan geunden orduan.

• Alaveszalea izatea ez da erraza izan gehienetan. Beste batzuk Lehen Mailan zeuden bitartean, gu Hirugarrenean.

- Garai hartan ohikoak ziren txantxak. Nik beti esaten nien gauza bera, Deportivo Alaves futbol talde handia zela, eta egunen batean Lehen Mailan egongo ginatekela. Bi-garren B Mailako putzuan oso talde garrantzitsuak daude beti.

• Euskal Selekzioari bai?

- Bai, noski.

Presio handia

• Ba, Iribarri eta Expositori esan beharko diogu Sibori jokatzeko prest dagoela. Askok kontrakoa pentsatu arren, ez zizuten azken

partidurako deitu.

- Ez nau kezkatzen. Eguneroko lanak kezkatzen nau. Deportivo Alaves da nire taldea eta horretan nabil buru belarri.

• Mendizorrotza Lehen Mailako futbol zelaia da?

- Nik uste dut baietz. Hainbat konponketa lan bukatu gabe daude, baina futbol zelaia bukatzerakoan,

"Euskal Selekzioari bai noski."

oso polita izango da.

• Liga amaitzeko, Athleticen eta Realaren aurka jokatu beharko duzue. Nolakoak izango dira norgehiagoka horiek?

- Norgehiagoka guztiak bezalaxe, oso zailak izango dira. Euskaldunentzat oso partidu politak ditugu euskal derbyak. Alabaina, hori alde batera utzirik, guk puntuak lortu beharko ditugu, azken ulean erabakiko baita sailkapena.

• Noizbait Athleticen jokalaria bat edo beste parrandan dabil Gasteizetik. Horrelakoetan nora doa Sibori?

- Ni parrandak egiten ditudan gutietan, Gasteizen egiten ditut. Ez daukat izkutatu beharrik, eta beraz, ez Bilbora ez inora. Niri lagunekin Gasteizen egotea gustatzen zait.

• Futbol jokalariek presio handia jasan behar omen du. Hainbesterakoa da?

- Zenbat eta maila altuagoa izan, orduan eta presioa handiagoa duzu. Hirugarren Mailan zaudenean, lana baino ez dizute eskatzen, Bigarren Mailan guk ez genuen inolako presiorik antzeman, igotzeko beharrik ez baitzegoen. Orain, aldiz, Lehen Mailari eutsi beharra daukagu, eta presio handiari egin behar diogu aurre.

• Ikus-entzutezko ikasketak egiten zenituen bitartean, Euskal Telebistako beka bat izan zenuen. Zein da jokalaririk ikusgarriena telebistan ikusteko?

- Rivaldo, sasoi ederrean dago eta. Raul ere atsegin dut.

• Eta atzelaririk gogorrena?

- Gogorrak dira guztiak.

• Eta ekiporik onena?

- Aurten Barcelona da futbol talderik onena.

• Eta zein da Sibori deitzen duten hori?

- Leku bat bereganatzen saiatzen den jokalaria gazte bat da. Lan egin ez gero, lortuko duela uste dut. Beti aurrera egingo dut, futboleko zoriontsua bainaz.



Ismael Diaz de Mendibil

 *Edorta Sanz*

Ez da erraza abenturaren eta kirolaren arteko muga zehaztea. Juan Carlos Najera txirringaren gainean aritzen da, baina ez da ohiko txirringularia, Kilimanjaro, Alaska eta Australiako basamortua ez baitira errepide arruntak. Berak izotza, mendia eta hautsa nahiago ditu, baina beti txirringak lagun.

JUAN CARLOS NAJERA



"Arriskua gogokoa dut, baina kontrolpean"

Noiz pentsatzen hasi zinen Aldapan denbora galtzen zenuela larunbatero?

Orain 15 bat urte, 25 nituenean. Ni oso parrandazalea nintzen eta igandeak ohean ematen nituen. Hori aldatu beharra zegoelaz orduan ohartu nintzen, eta pixkanaka pixkanaka nire asteburueta-ko bizimodua aldatzen hasi zen. Txikitatik mendira joan naizenez, mendira joaten hasi nintzen...

Eta zure eguneroko lanean? Orain gutxi bulegoan lan egiteari utzi diozu eta.

Han ez nuen denbora alferrik galtzen, baina abentura izugarri gustatzen zaidanez, nire lanbidea izaten saiatu behar nuen. Esan eta izan.

Behin baino gehiagotan zure bizitza arriskuan jarri duzu. Arriskua atsegin duzu?

Arriskua gogokoa dut, baina kontrolpean. Ezustekoak ez ditut atsegin, baina arriskuaren zai baldin banago, gustura hartzen dut. Ezinezkoa dena gainditzea da nire ametsa.

Zenbat aldiz entzun duzu zoraturik zaudela?

Buaf! Milaka aldiz.

Egunean hamaika aldiz entzun behar izaten dut, lagunei, esaterako. Beste batzuek, aldiz, esandakoei jaramonik ez egiteko esaten didate, aurrera egiteko beti.

Instituzioen dirulaguntzarik gabe, puntako kirolaria izatea ezinezkoa da egun?

Nik egiten dudana egiteko bai. Dena den, ez naute laguntzen, nirea ez baita futbola edo saskibaloia. Halere, ulertu beharra dago, askok eskatzen baitugu eta dirua banatu behar da.

EZTA PEZETA BAT ERE

Batzuek diotenez, Andre Agassi tenislariaren eta Brooke Shields aktorearen arteko harremana tenisa dela eta bukatu egin da. Horrelako zerbait gerta dakioke Juan Carlos Najerari?

Ez dut uste. Lehen zailagoa zen, lana eta entrenamenduak tartekatuta behar baintuen; orain, aldiz, hobeto nabil. Bizimodu berezia da gurea, egun osoan kirolean zaude murgilduta... Ez edan, ez erre, gaez etxean, jateko orduan arre-

taz... Agian lagunari galdetu behar zenion.

Txirringularitzan berandu hasi zinen, agian, beranduegi?

Lehen aipatu bezala, zortzi urte nituela, mendian ematen nituen asteburuak. Hori zen nire kirola, baina mina hartu nuen mendian, eta txirringaz ibiltzen hasi nintzen.

Iragarkiko mutilak dioenez, 200 pezeta eta ilusioa ditu, zer duzu zuk?

Nik ilusioa bai, baina ezta pezeta bat ere.


Bakarrik gaudenez, kontaidazu zure ametsetariko bat.

Nire ametsa kirola lanbidetzat izatea da. Ez litzaidake bulegora itzuli behar izatea gustatuko.

Eta politikaz ez dizut galdetu...

Behar den legez. Nire ideak ez zaizkio inori interesatzen. Baten bati nik esandakoak interesatzen bazaizkio, kirolarengatik izango da, ez nik ditudan ideiak direla eta.

 **Ismael Diaz de Mendibil**
Edorta Sanz



NONBAIT

Opariak: zeramika, zilarra, postalak...

Kamisetak: Barabú, Greenpeace, Kot, Perretxikoak basoan...

Euskal oihalak

Loma Jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09
Mateo Moraza kalea, 7 beheka • 01005 GASTEIZ

Canciones con Corazón



Los Boys, Erupción eta Warning izeneko taldeek gitarrista eta ahotsa izan zuten Kepa Agirre 70. hamarkadaren hasieran. Gau-festetik eta jai aretoetatik zetozen lan gehienak. Oraindik Kepa ez zen abestiak sortzen hasita, eta Beatles, Creedence edo Rolling-en abestiek hiru talde horien errepertoriak bete zituzten. 80. hamarkadaren erdian, Arlequin antzerki taldearekin batera, bere kantak entzuteko aukera izan genuen lehenengoz, eta orain, Canciones con Corazón izeneko grabaketaren bidez, bere musika-karrera sendotzen ahalegiten da. Canciones con Corazón ez dago salgai, baina entzun dugunok Kepa-k, José Luis Guillerna-k lagunduta, abestiak egiten dakiela esan dezakegu.

• Oso musikari eklektikoa zaren arren, Canciones con Corazón osatzen dituzten kanta gehienak erritmo mexikarrak beterik daude. Zergatik? - Mexiko betidanik izan dut gogoko. Atsegin dut M. Acebes Mejias eta

Kepa Agirrek berrogeita zortzi urte ditu eta gustura utziko lioke trokelak egiteari, bete-beteko dedikazioaz musikari ekin ahal izateko. Sei urte zituela harmonika jotzen ikasi zuen. Ondoren, Gasteizko Kontserbatorioan ikasi, eta hamairu urtekin Ramiro de Maeztu institutuan bere lehenengo agerraldia gauzatu zuen. Dena den, hemeretzi urte bete arte ez zen benetan bere musika-karrera hasi.

Jorge Negrete-ren abestiak entzutea. Bestalde, José Luis Guillerna "Joe"-k, hizlaria, familia du Mexikon. Dena den, grabaketa honetan Mexikoko doinuak nagusi badira ere, hurrengoak ez du zertan hau bezalakoa izan behar. Orain, esate baterako, bolero bat ari gara prestatzen. Ez dakit nola esan, baina kantak sortzerakoan ez dugu ezer aurrez erabakitzen. "Joe"-k hitza idazten du, eta ondoren, testuaren arabera, musikaz ni arduratzen naiz.

• Canciones con Corazón ez dago salgai.

Canciones con Corazón-en bitartez "Joe"-k eta biok osatzen dugun bikote sortzailea bultzatu nahi dugu.

- Bai, halaxe da. Canciones con Corazón etxean zertutako grabaketa bat da. Carlos Sanz lagunaren etxean egin genuen, alegia. Maketazioa Fernando Forniés-en lanaren emaitza da. Ez genuen kaleratzeko asmoz grabatu, baizik eta zenbait irratiri, disketxeri eta abeslariri bidaltzeko.

• Eta horien erantzun onik jasotzen ez baduzue, zuen kabuz argitaratzeko gogoia daukazue?

- Ez. Ez dugu grabatu zinta hau gu abeslari gisa sustatzeko asmoz, "Joe" eta biok osatzen dugun bikote sortzailea bultzatzeko baizik.

• Zuzenean abesten aritzen al zara?

- Gutxitan. Auzoko jaietan (Txukun-Lakuan) behin, Alde Zaharreko bolatokian beste batean, eta tabernaren batean egin dut. Dena dela, agerraldi gutxi hauetan ez dit inongo talderik lagundu. Aurrez grabaturiko musikaz baliatzen naiz, eta ahotsa, berriz, zuzenean da.

• Eta grabazioa egiterakoan ere, ez duzu beste musikari batzuen laguntza behar izan.

- Ez, ordenagailuz egin dut dena. Ordenagailuan idazten dut nire musika. Batzuetan lanean nagoela etortzen zaizkit ideiak, beste batzuetan lagunekin kafe bat hartzen

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

**Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz**

ELEKTRIZITATEA

GURIA

MUNTAIA ELEKTRIKOAK • AUTOMATISMOAK
GIROTZKO MUSIKA ETA SEGURTASUNA

**Matxaria, 2 - 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR**



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

**Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoileko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52**

gertatzen da. Horrelakoetan paper-txo batean apuntatzen dut ideia, eta ondoren, etxean lasai, ordenagailuan idazten dut. Musika-programa bat daukat, zeinek nahi ditudan tresnak erabiltzeko aukera ematen didan. Grabatzeko prozedura bera erabiltzen dut; ordenagailua dela medio egiten dut, hain zuzen.

- ETB-ko Izar Bila saioan ikusi zaitugu.

- Bai, egia. Nire abestiak zabaltzeko asmoz izena eman nuen iaz. Nire kanta bat abestu nahi nuen, baina iaz ordeztu aurretik deitu didate, eta oraingo arauak ezberdinak omen dira. Hori horrela, beste norbaiten abestiak kantatzera behartu ninduten. Benito Lertxundiren bat, "Entzun zazu", eta The Beatles-en beste bat, "Yesterday", aukeratu nituen.

- Zure burua abeslari ikusten al duzu?

- Ez dut uste nire ahotsa urrunera joateko denik. Nik ez dut ospetsua eta aberatsa izan nahi, baina trokelak egin beharrean, abestiak sortzen aritzea gogoko nuke.

- Abesti bat egin eta gero, pentsatu al duzu noizbait: "um bai, kanta hau abeslari honek kantatzeko aproposa liteke".

- Ez. Noizbait pentsatu dut nire abestiren bat telebistako iragarki-

"Joe" k hitza idazten du, eta ondoren, testuaren arabera, musikaz ni arduratzen naiz"

ren batean ager litekeela, baina ez dut sekula inor eta ezer zehatzaz pentsatzen. Abestiak ondo bukatzeko gai izango naizen ala ez izaten dut kezka handiena. Eta abestiak amaitu ondoren, nahi duenak abes ditzala!

- Zertan zabilta orain?

- Saitzen ari naiz Udaletxearekin, Foru Aldundiarekin edota Aurrezki Kutxekin harremanetan egoten. Konposatu ditut klasiko estiloko kanta batzuk, eta nik uste, horien laguntzaz, banda edo orkestrarentzako egokitu daitezkeela. Nik ez dakit haize eta korda tresnekin lantzen, eta norbaiti halako konpoketak agintzea oso garestia izaten da. Oso gogoko nuke Euskadiko Orkestra-k ala Gasteizko Banda-k nire kantaren bat jotzea. Gainera aipatu dizkizudan abesti hauek gure hiriko zenbait lekuri eskainita daude.

- Klasikoa, boleroak, mexikarra... Badirudi etxe guztiak bisitatu nahi dituzula.

- Kepak entzuten duen guztia du gogoko. Musika mota denak bizi izaten ditu (erantzun zigun ateondotik

Maitek, Keparen emaztea) Txatarra ez dut atsegin (Kepak, berriaz ere). Alde batetik bestera saltoka nabilela ematen badu ere, uste dut nire lana koherentea dela. Azken finean, tankera batekoa ala beste bestekoa izan arren dena musika da, eta erritmoak tentuaren arabera sortzen dira.

- Elkarrizketa hasi aurretik duela hogei urtetako ideiak garatzen ari zarela esan diguzu.

- Bai. Batzuetan buruan melodia bat baduzu ere, ez zara une horretan garatzeko gauza. Ipuinaren hasiera duzu, baina ez dakizu nola jarraitu, eta askoz gutxiago ere nola bukatu. Ideia horiek gordetzen ditut, jakina, batzuetan buruan, eta beste batzuetan paperetan idatzita. Zenbait alditan ere hitz on bat daukat aurretik, baina ezin diot musika egokia topatu. Edota kontrakoa gerta daiteke: musika idatzita daukat baina laguntzeko testu on bat falta zait. Halakoetan "Joe"-ri esten diot hitzaz arduratzeko.

Atsegin dituzu "Joe"-ren hitzak?

Bai, idazle trebea da. Oso lagun ona dut "Joe", eta gainera, jatorra izateaz gain, lantzeko prest egoten da beti.

- Presa duzu norabait heltzearen?

- Ez. Ahalik eta lasterren musikari esker bizitzea espero dut, baina ez dut presa handirik. Dena den, nire asmo hau gauzatzen ez bada, ez da ezer gertatuko.

Joan baino lehen Kepak kanta bat eskaini nahi izan zigun. "Tren de Durango" entzun eta gero ez dugu inolako zalantzarik: Kepak bikain daki abesti ederrak sortzen.

HARREMANETARAKO TELEFONOA:
945.17.02.62.

 Txabi Arnal-Gil
 Edorta Sanz



HEGOALDE

matrikula zaitetz!

Jose Lejarreta 9 behea • tfnoa 945 28 41 96 • 01003 GASTEIZ



Tu Invernadero

zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

SOINUA K DENBORAN ZEHAR

THE DOORS, "L. A. Woman"

Electra Records, 1971.

Abeslaria Jim Morrison zelarik, bost diska utzi zizkigun The Doors talde kaliforniarak bere ibilbide labur eta bizian zehar; bost lp bikain eta zenbait single arrakastatsu. 1967. urtean Morrison-en taldearen uste-kabeko korrika hasi zen "The Doors" izeneko diska indartsu eta freskoaren bidez. "Ligh My Fire" agertu bezain pronto abesti mitiko bilakatu zen, eta abestia baino mitikoago Jim Morrison abeslaria bera. "Strange Days"-ek, hurrengo urtean agertutako diska, ezin izan zion eutsi lehenengoak zabalduetako indarrari.

Psikodelia eta rock and rollaren arteko norgehiagoka hartan, lehenengoa garaile gertatu zen. Hirugarren saioan, "The Soft Parade", aldiz, pop-a izan zen irabazlea, eta beharbada horregatik taldearen ahulena izan da beti 1969.ko lan hura. Hamarkada berriak rock and rollaren uretan erabat murgilduta zegoen "Morrison Hotel" lp-a ekarri zuen, taldeak hasierako indarra, ospea, eta eskandaluak (batik bat, Morrisonek zuzenekoetan protagonizatuak) berreskuratu zituztelarik. Eta urte bat beranduago kaleratu zen gure



ustez talde mitiko honen diska bikainena dena: "L.A. Woman", agian rock historiak oparitu digun lan handienetarikoa bat. "L.A. Woman" honetan kaliforniarak guztiz indarberrituta dauzkagu. Inoiz baino musikari trebeago, sekula baino inspiratuago, inoiz baino taldeago. Eta guzti honi gehitzen badiogu garai hartan Krieger, Manzarek, Densmore eta Morrison bera blues-ik sendoenaren iturrietako ura edaten ari zirela, emaitza blues beteriko lp hobezin hau baino ezin da izan. "Love Her Madly", "Been Down So Long", "Cars Hiss By My Window", "L.A. Woman", "Riders On The Storm" ala "Hyacinth House" entzunak al dituzue? Bai? Ez garelako gezurrik esaten ari daki-zue, beraz.

Txabi Arnal-Gil

ARABAKOAK

SINDROME DEL DESCONTROL.

A Duras Penas izeneko lehenengoko KD-a kalera-tu zuten iaz Aguraingo laukote honen lagunek; hamabi abesti non ezau-garri nabarmenena gogor-tasuna den. Indarra, beraz, lautadako hauen hitzek eta zuzenekoek zabaltzen dutena.

Harremanetarako telefonoa:
945.30.12.43. (Iñaki).



WEB.

Web izeneko laukoteak gogoko du 70. eta 80. hamarkaden rock



gogorraren uretan murgiltzea. Euren erreperitorioan Queen, ZZ Top edota Black Sabbath taldeen abestiren bat falta ez bada ere, hainbat kanta sortu dute jadanik. Urte t'erdi hasi zirenetik eta jaso dute dagoeneko euren lehenengo lana grabatzeko eskaintza. Ez dago batere gaizki, ez.

Kontaktua: 945.23.37.91. (Edgar)

VICTOR CELADA.



Musikari handiez inguraturik izaten dugun Victor Celada jazz-bateria joleak orain bi urte, gure hiriko Principal Antzokian, PUNCH izeneko lana grabatu zuen. Amarrurik gabe, "overdub" barik eta ondorengo nahasketarik gabe, PUNCH-ean entzun daitekena gasteiztar honen zuzeneko bat baino ez da. Nolako zuzeneko, gainera!

Txabi Arnal-Gil

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKOR

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



***gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak***



adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Errege Atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ZALDUONDO KULTUR ELKARTEA

*Uztailera arte.
Lazarraga Jauregian.
Asisko Urmeneta artista
nafarraren erakusketa.*

Maiatzaren 16 an.

12:00etan.

*Lazarraga Jauregian.
"Done Jakue" bideari
buruzko hitzaldia.*



Adi musika talde guztiak!

Izadi Editorialak, laugarren urtez jarraian, Arabako Musika Taldeen gida kaleratu-ko du laister.

Bertan agertzeko interesa duten musika talde guztiek *Diaz de Olano Marg. 22, behera* bidali dezakete beraien informazioa (taldearen ezaugarri nagusiak, par-taideak, eta kontaktatzeko telefonoa).

Informazio gehiago nahi izanez gero 945 24 52 69 telefonora dei dezakezue.

Artea Kafetegi eta Tabernetan

• **ABADIA.**

Erakusketa.

• **AJURIA.**

BEATRIZ ABASCAL HERMOSILLA.

• **AMARICA.**

Zezenketak kartel erakusketa

• **ARTEMIS.**

J. NAVARRO.

• **ASTORIA.**

JUAN PEDRO

• **ATXUBI.** Amurrio.

VICENTE GUILLEN.

• **BELINTXON.**

KIKO "Arte casual".

• **DUBLIN.**

VOOR IN'T HOLT Argazkiak.

• **CANGURO ROJO.**

M^a TERESA CORRAL.

• **DALLAS.**

IDOIA USOBIAGA

• **DUKESSA.**

BARBARA SIRE.

• **ERPIDEA.**

LUIS CASTILLO

• **A GALERIA.**

DAVID

• **MATISSE.**

EMILIO

• **ORBELA.**

MONIKA MIELENTZ - CANDA

• **PANAMA.**

"BLACK MAGIC WOMAN"

FLOREN PEREZ Argazkiak.

• **PASAR SENI.**

ANGEL GARCIA

"Haitiana caribeña"

Gazte AUZOLANDEGIAK

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak aurten ere auzolandegeiak antolatu ditu uda honetarako. Beste modu bat zure oporrez gozatzeko. Estatu eta munduan zehar ere badaude, guk gure lurraldean antolatzen direnen berri emango dizuegu. Gehiagorik jakin zahi baduzu jo dezakezu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera, Wellington Dukea, 2 edo honako telefono honetara deitu: 945 18 95 01.



ARABAN:

- Erribera Beitia
- berreraikitzea.
- Zuia
- Ingurugiroa.
- Artziniega
- Etnografia eta berreraikitzea.
- Amurrio
- Etnografia.
- Estibaliz
- Kultura eta egokitzea.

Araba Euskaraz ekitaldiak

maiatzak 8, larunbata
Mendizorrotzan.
gaueko 21:00etan
KEPA JUNKERA ETA
ALBOKA TALDEA.
Prezioa: 1.000 pta.

maiatzak 12, asteazkena
Filologia Fakultatean.
goizeko 12:00etan
HITZALDIA:
"EUSKARA ARABAN".

maiatzak 13, osteguna
Gaztetxean.
KONTZERTUA:
"TRIKITIXA KONTRAIRO
TALDEA".
Sarrera sinbolikoa.



maiatzak 22, larunbata
Principal Antzokian.
Gaueko 20:30etan.
"BERTSO TRAMA".

maiatzak 29, larunbata
Foru Enparantza..
Goizeko 10:00etatik
Eguerdiko 14:30etara.
"KIROL JAIALDIA".

Plaza Berrian.
Goizeko 10:00etatik
Eguerdiko 14:30etara.
"ARDO DASTAKETA".

MIKO

izozkiak



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 · GASTEIZ

PLATÓ

TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10 · Tfoa.: 945 22 65 64

XURRUT

KUTXI 103

GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

on egin!

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39





BADAKIZUE; OPARIAK GEU GASTEIZKO ERREDAKZIO BATZORDERA BIDALI. ESKERRIK ASKO

**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errola Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prentsa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91 16 15 61 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

CASA DE CULTURA

Departamentu
Foral de Artxea

KULTURA ETXEA

KULTURA ETXEA

Hitza Kultura Etxean

maiatzak 14, ostirala

Hitzaldia:

"Euskara Araban"

Koldo Zuazo

goizeko 10:00etan

maiatzak 18, asteartea

Hitzaldia:

"Erotismoa

euskal literaturan"

Juan Martin Elexpuru.

Aurkezpena: Bixent Gil de Paules. Ant. IKA

maiatzak 14, ostirala

arratsaldeko 16:00etan

Diapositiba emanaldia.

"Txirringarren aienean"

*Asian barrena bidaitutako bi emakumek idatzi-
tako liburuan oinarritzen da. Ant. IKA*

arratsaldeko 18:00etan

maiatzak 19, asteazkena

Ipuin kontalaria:

Enkarni Genua.

arratsaldeko 18:00etan

maiatzak 17, astelehena

"Txan handia magoa"

Ant. IKA

goizeko 10:00 etan / arratsaldeko 20:00etan

maiatzak 25, asteartean

ALAITZ ETA MAIDER-en

disco berriaren aurkezpena.

arratsaldeko 20:00etan

Floridako ibilbidea, 9

tfnoa.: 945 18 19 44 • faxa: 945 18 19 45

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa